



Espainiako Historia

EZAGUTU SAILA

Batxilergoko 2. mailarako **Espainiako Historia** liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarte** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze-lanean honako talde honek esku hartu du:

Nerea Atxega Zubikarai
José Manuel Fernández Ros
Jesús González Salcedo
Vicente León Navarro
Germán Ramírez Aledón

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea Llona
David Ramírez Muriana
Nuria García Noceda

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo Uriarte
Lourdes Etxebarria Orella

Liburu honetako jarduerak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Jardueretan proposatzen ditugun taulak, eskemak eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Aurkibidea

I. BLOKEA. HISTORIAURRETIK ARO MODERNORA

1	Historiaurretik Bisigodoen Erresumaren amaierara	
1.	Historiaurrea	10
2.	Erromatarren aurreko herriak.....	14
3.	Hispania erromatarra.....	17
4.	Bisigodoen Erresuma	22
	Egiten jakin. Ardatz kronologikoak	26
	Historia zure bizitzan. Ondare erromatarren iraupena	27
	Proiektua. Labar-artean teknologia berriak erabiltzeak dituen onurak aztertzea.....	28
2	Erdi Aroa	
1.	Al Andalusen konkista eta bilakaera	32
2.	Kalifa-estatua	36
3.	Al Andalusko ekonomia eta gizartea.....	37
4.	Al Andalusko kultura	40
5.	Kristau-erresumak	42
6.	Kristau-erresumen antolaketa politikoa.....	45
7.	Kristau-erresumetako gizartea eta ekonomia	47
8.	Behe Erdi Aroko krisia	51
9.	Behe Erdi Aroko bilakaera politikoa	53
10.	Kultura hispano-kristaua	55
	Egiten jakin. Mapa historiko baten iruzkina	60
	Historia zure bizitzan. Donejakue Bidea.....	61
3	Monarkia Hispanikoa: xv. mendetik xvii. mendera	
1.	Monarkia Hispanikoaren sorrera. Errege-erregina <i>Katolikoak</i>	64
2.	Austriako etxeko errege handiak	68
3.	Austriako etxeko errege txikiak.....	75
4.	Itsasoz bestaldeko inperioa.....	79
5.	Ekonomia eta gizartea	81
6.	Kultura Urrezko Mendean.....	84
	Egiten jakin. Testu historikoak iruzkintzea	88
	Historia zure bizitzan. Indietako Legeak eta giza eskubideak	89
4	xviii. mendea: borboien erreformismoa eta ilustrazioa	
1.	Dinastia-aldaketa eta Ondorengotza Gerra	92
2.	Borboien absolutismoa	94
3.	Borboien kanpo-politika.....	97
4.	Despotismo ilustratua eta erreformismoa	98
5.	Ekonomia eta gizartea xviii. mendean	101
6.	Kultura Ilustrazioan	106
7.	Karlos IV.a: monarkiaren krisia	107
	Egiten jakin. Artelan baten iruzkina.....	110
	Historia zure bizitzan. Ondorengotza Gerra eta lurralde-antolaketa.....	111

II. BLOKEA. XIX. MENDEA

5	Antzinako Erregimenaren krisia eta iraultza liberala	
1.	Monarkiaren krisia eta Independentzia Gerra	116
2.	Cádizko Gorteak.....	121
3.	Seiurteko Absolutista (1814-1820).....	123
4.	Hirurteko Liberala (1820-1823)	125
5.	<i>Zorigaiztoko</i> Hamarkada (1823-1833).....	127
6.	Amerikako kolonien independentzia	130
	Egiten jakin. Irudi politiko bat aztertzea eta iruzkintzea.....	134
	Historia zure bizitzan. Espainiako konstituzionalismoa	135
6	Isabel II.aren erreinaldia	
1.	Maria Kristinaren erreginaordealdia (1833-1840)....	138
2.	Esparteroren erreginaordealdia (1840-1843)	142
3.	Hamarkada moderatua (1844-1854).....	143
4.	Biurteko progresista (1854-1856)	146
5.	Batasun Liberala alderdiaren hegemonia (1856-1868) .	148
	Egiten jakin. Kontzeptu-mapa bat egitea.....	154
	Historia zure bizitzan. 1866ko finantza-krisia	155
7	Seiurteko Demokratikoa (1868-1874)	
1.	Iraileko iraultza eta behin-behineko gobernua	158
2.	Serranoren erregeordealdia.....	160
3.	Amadeo I.aren erreinaldia	162
4.	Lehen Errepublika	164
5.	Arazo soziala eta Kubako Gerra.....	168
	Egiten jakin. Karikatura politiko bat aztertzea eta iruzkintzea.....	172
	Historia zure bizitzan. Errepublikanismoa eta haren balioak	173
	Proiektua. Karlismaldietan euskal herritarren artean izandako borrokei buruz ikertzea	174
8	Berezarkuntzako monarkia	
1.	Berezarkuntzako sistemaren sorrera	178
2.	Berezarkuntzako sistemaren oinarriak eta funtzionamendua.....	180
3.	Alfonso XII.aren erreinaldia eta haren osteko erregeordealdia.....	183
4.	1898ko Hondamendia.....	185
5.	Berezarkuntzak izandako oposizioa.....	188
	Egiten jakin. Alderdi politiko baten programa aztertzea eta iruzkintzea	194
	Historia zure bizitzan. Euskal nazionalismoa Berezarkuntzaz geroztik.....	195
9	Ekonomia- eta gizarte-aldaketak xix. mendean	
1.	Aldaketa demografikoak	198
2.	Nekazaritzako eraldaketak	200
3.	Industria eta meatzaritza.....	203

4. Merkataritza eta komunikabideak.....	206
5. Ogasuna, banka eta moneta-sistema.....	209
6. Gizarte berria	211
7. Obreroismoa eta gizarte-mugimenduak.....	214
8. Kultura-ereduak	218
Egiten jakin. Bi grafiko estatistikoren azterketa konparatiboa.....	222
Historia zure bizitzan. Bigarren hezkuntza Espainian	223

III. BLOKEA. XX. MENDEA

10 Alfontso XIII.aren erreinaldia: Berrezarkuntzaren krisia	
1. Alderdi dinastikoen ahaleginak sistema onbideratzeko	228
2. Alderdi antidinastikoa eta langile-mugimendua	231
3. Lehen Mundu Gerra eta haren ondorioak	234
4. Sistema liberalaren kolapsoa.....	237
5. Primo de Riveraren diktadura eta monarkiaren amaiera	242
6. Kulturaren Zilarrezko Aroa	246
Egiten jakin. Prentsa, iturri historikoa.....	250
Historia zure bizitzan. Anarkismoaren iragana eta oraina	251
11 Ekonomia- eta gizarte-aldaketak xx. mendearen lehen herenean	
1. Espainiako ekonomia Europako testuinguruan.....	254
2. Baserri-sektorearen aldaketak eta mugak	256
3. Industria- eta finantza-garapena	258
4. Demografia- eta gizarte-aldaketak	262
Egiten jakin. Estatistika-taula bat aztertzea eta iruzkintzea	268
Historia zure bizitzan. Mugimendu feminista	269
12 Bigarren Errepublika	
1. Errepublikaren aldarrikapena eta aldi konstituziogilea	272
2. Biurteko Erreformista (1931-1933)	276
3. Biurteko Erreformistaren arazoak eta krisia.....	280
4. Zentro-eskuineko Biurtekoa (1933-1935)	282
5. Fronte Popularra	286
Egiten jakin. Fotokazetaritza eta prentsa, iturri historikoak.....	292
Historia zure bizitzan. Bigarren Errepublikaren irudia gure memorian	293
13 Gerra Zibila	
1. Altxamendu militarretik gerra zibilera	296
2. Gerra Zibilaren nazioarteko dimentsioa	298
3. Operazio militarrak	301
4. Eremu errepublikanoa	306
5. Eremu <i>nazionala</i>	310
6. Espainiako Gerra Zibilaren ondorioak.....	313
Egiten jakin. Propaganda politikoko kartel baten analisia eta iruzkina	318

Historia zure bizitzan. Gerrako eta gerraosteko biktimei emandako ordaina	319
--	-----

14 Gerraostea eta estatu frankista eraikitzea (1939-1959)	
1. Francoren diktadura	322
2. Estatu berria instituzionalizatzea eta finkatzea.....	325
3. Erbestea, errepresioa eta oposizioa	326
4. Hastapenetako frankismoaren kanpo-politika	328
5. Politika autarkikoa eta atzeraldi ekonomikoa	332
Egiten jakin. Propagandako dokumentalak interpretatzea: NO-DOa	336
Historia zure bizitzan. Eroritakoen Harana: frankismoa goresetik adiskidetzearen alde egitera	337
15 Frankismoaren sendotzea eta amaiera	
1. Erreforma ekonomikoak	340
2. Hazkunde ekonomikoa eta gizarte-aldaketa	342
3. Oposizio demokratikoa eta errepresio frankista	345
4. Errealitate berrira egokitzeko saioak.....	347
5. Frankismoaren agonia	349
Egiten jakin. Komunikabideen analisia iturri historikoak diren aldetik	354
Historia zure bizitzan. Emigrazioa	355
Proiektua. Euskal nazionalismoaren jatorria eta bilakaera xx. mendean aztertzea.....	356

IV. BLOKEA. GAUR EGUN

16 Demokraziarako trantsizioa	
1. Frankismoa Franco gabe	362
2. Frankismoaren deuseztapena eta kontsentsua	363
3. Krisi ekonomikoa eta Moncloako Itunak	368
4. Konstituzioa eta estatu autonomikoa.....	369
5. UCDren bigarren legegintzaldia	372
Egiten jakin. 1977ko hauteskunde-kartelen analisia..	376
Historia zure bizitzan. Trantsizioa. Haustura itundua..	377
17 Demokrazia 1982tik gaur egunera arte	
1. Felipe Gonzálezen agintaldiko gobernu sozialistak.	380
2. Aznarren agintaldiko gobernu popularrak.....	384
3. Zapateroren agintaldiko gobernuak	386
4. Rajoyren agintaldiko gobernuak	388
5. Gizarte-aldaketak	390
Egiten jakin. Gai bat garatzea: Espainia demokratikoa	394
Historia zure bizitzan. Konstituzioaren erreforma	395
Proiektua. 4.0 industriako azken aurrerapen teknologiko batzuk aztertzea	396

Kontsultatzeko eta edukiak zabaltzeko iturriak	398
Termino historikoen aurkibidea.....	404
Biografiaren aurkibidea	405
Mapen eta grafikoaren aurkibidea	406

Unitatearen eskema

Unitatea **hastean**, hau aurkituko duzu:

Unitatean landuko
dituzun **edukien**
aurkibidea.

Hasteko deritzon atala. Atal horretan, hasierako bi orrialdeak lantzen dira.

Denbora-lerro bat. Han agertzen dira unitatean garatuko diren oinarrizko gertakariak.



Hala badagokio, **mapa** bat,
zer eremu geopolitiko azter-
tuko den adierazten duena.


Sarrera-testu bat, unitateko edukien berri ematen duena.

Ikasiko duzun garaiarekin lotutako **literatura-lanei**, **filmei** eta **webguneei** buruzko gomendioak.

Barruan, edukiak **epigrafetan** eta **azpiepigrafetan** garatzen eta egituratzen dira.

Azalpen-testu argi eta labur baten bidez, unitateko funtsezko edukiak daude garatuta.

Azalpen-testua osatzeko, hainbat **dokumentu** daude (testuak, argazkiak, mapak, grafikoak, taulak). Dokumentu bakoitzean zenbait jarduera daude.



Argitu beharreko terminoek izartxo bat dute, eta haien definizioa **glosario** batean ageri da, orrialdearen ertzean.

Epigrafe bakoitzeko **jardueren** bidez jakingo duzu ea edukiak ulertu dituzun.

Unitatean landutako
etapako protagonisten
biografiak.


Eztabaidatu atalean, unitateko alderdi polemiko bati buruz hausnartzea proposatzen da.



Ba ote dakizu? atalean,
unitatean landutako edukiak
zabaltzen dira.

Laburpen- eta sintesi-orrialdeetan edukiak nahiz gaitasunak lantzen dira.


Laburpena: orrialde horretan, unitateko edukiak laburbildu, eta laburpen hori lantzeko jarduerak proposatzen dira.



Sintesi-lana: unitateko alderdi bat garatuko da, mapekin, grafikoekin, testuekin eta irudiekin lan egingez. Amaieran, aztertutako dokumentu guztietatik ateratako informazioaren sintesi-lan bat proposatzen da.

Amaierako orrialdeek zuzenean lagunduko dizute gaitasunak lantzen.

Egiten jakin: orrialde horretan, historia aztertzeko teknika garrantzitsuenekin lan egiten ikasiko duzu; besteak beste, testu, argazki, grafiko eta irudi historikoak iruzkindu, konparatu eta aztertuko dituzu, eta kontzeptu-mapak eta ardatz kronologikoak egingo.



Historia zure bizitzan atalean, gertakari jakin batzuk aztertzen dira, unitatean aztertu duzun garaian sortu eta gaur egun ere indarrean daudenak. Espainiako historia era praktikoan aplikatzen da, oraina ulertzeko.

Euskal Herriari buruzko lau proiektu, bat bloke bakoitzean.

Oinarrizko gaitasunak

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Arloko gaitasunak

-  Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
-  Matematikarako gaitasuna
-  Zientziarako gaitasuna
-  Teknologiarako gaitasuna
-  Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
-  Arterako gaitasuna
-  Mugimendurako gaitasuna

Zehar gaitasunak

-  Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
-  Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
-  Elkarbizitzarako gaitasuna
-  Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
-  Izaten ikasteko gaitasuna

I. BLOKEA

Historiaurretik Aro Modernora

UNITATEAK

- 1 **Historiaurretik Bisigodoen Erresumaren amaierara**
- 2 **Erdi Aroa**
- 3 **Monarkia Hispanikoa: XV. mendetik XVII. mendera**
- 4 **XVIII. mendea: borboien erreformismoa eta Ilustrazioa**

Italicako (Santiponce, Sevilla) erromatar mosaikoa.



Isturitzeko (Nafarroa Beherea) kobazuloan aurkitutako hagaxka apainduak.

Bloke honek ezaugarri berezi batzuk ditu, eta, beraz, desberdina da besteetatik. Oso bloke heterogeneoa da, denbora luzea hartzen baitu: gizakia Penintsulan azaldu zen unetik hasi –duela milioi bat urte baino gehiago– eta XVIII. mendearen amaierara arte; Aro Garaikidearen hasierara arte, alegia.

Lehen unitatea historiaurretik Bisigodoen Erresumaren amaierara arte doa; hau da, erresuma hori musulmanen eskuetan erori zen unera arte. Denbora-tarte horretan sustraitu ziren Baskoniako eta Espainiako kultura nahiz erlijioa.

Bigarren unitatea Erdi Aroari buruzkoa da. Garai historiko hartan, Penintsula bi eremu handitan zegoen banatuta erlijioari eta politikari dagokionez: alde batetik, Al Andalus, eta bestetik, kristau-erresumak. Testuinguru horretan, baskoiek musulmanei aurre egin behar izan zieten hegoaldean, eta frankoei iparraldean.

Hirugarren eta laugarren unitateek Aro Moderno izenez ezagutzen den garaiari erreparatzen diote. Etapa horretan gero eta estatu-eredu indartsuago bat sortu zen; euskal lurraldeetan, berriz, probintziak sortu ziren, ilustratuen kultura-mugimenduarekin batera. Espainia bere botere politiko eta militarren gailurrera iritsi zen garai hartan, baina geroago, gain behera etorri eta nazioartean atzera egiten hasi zen.



Kordobako meskita.



«Erromatarrek Hispania izena aukeratu zuten [...] lurralde penintsular hura izendatzeko; urrutiko *finis terrae* hura –beren hizkuntzaz, zuzenbideaz eta herri-lanen ondare ikaragarriaz– urbanizatu edo kolonizatuko zutena– izendatzeko. Izena finkatu egin zen».

RICARDO GARCÍA CÁRCEL, *La herencia del pasado. Las memorias históricas de España*, 2011

1

Historiaurretik Bisigodoen Erresumaren amaierara

EDUKIAK

- 1 Historiaurrea
- 2 Erromatarren aurreko herriak
- 3 Hispania erromatarra
- 4 Bisigodoen Erresuma

HASTEKO

- Begiratu irudiari. Zer motatako eraikina da? Zer beste monumentu erromatar ezagutzen dituzu? Arteaz gain, zer ondare utzi ziguten erromatarrek?
- Begiratu mapari. Zer espazio geografiko hartzen zuen Erromatar Inperioak? Nola deitu zioten erromatarrek Mediterraneo itsasoari? Zer onura izango zituen Hispaniak Erromatar Inperioaren barruan integratuta?
- Aztertu denbora- lerroa eta azaldu aro luze horretako gizarteen kronologia.



HISTORIAURREA

Behe Paleolitoa

K.a. 1.200.000 >

K.a. 1.000.000
Homo antecessor /
Atapuerca

K.a. 350.000
Homo heidelbergensis /
Atapuerca



Erdi Paleolitoa

K.a. 200.000
Homo neanderthalensis /
Moustier aldia
Lezetxikiko
besahezurra



Goi Paleolitoa

K.a. 40.000
Homo sapiens sapiens

K.a. 25.000
Labar-arte
kantauriarra

Neolitoa

K.a. 5.000-2.500. >


K.a. 3.000-1.700
Kobre Aroa



Metalen kultura

K.a. 1.700-1.000
Brontze Aroa

K.a. 1.100
Burdin Aroa



ITURRIA: J.R. Juliá (zuzendaria), *Atlas de historia universal*, 2000 - Egile-editore

Iberiar penintsularen eta euskal lurraldeen historiaren erroetan lehenengo hominidoak daude. Oraingoz, aurkitutako aztarnarik antzinakoenak Atapuercako (Burgos) aztarnategikoak dira, eta Lezetxiki kobazuloan (Gipuzkoa), Atapuercakoen ondoren antzinakoena den giza hondakina aurkitu da.

Orduan hasitako aro luzean, fluxu historiko handiak izan ziren Penintsulan eta euskal lurraldeetan: Historiaurreko zenbait gizaki mota, nekazaritzaren aurkikuntza, herri kolonizatzaileen okupazioak eta Erromak eragindako aldaketa handiak.

Erromatar Inperioaren krisiak eta Bisigodoen Erresumaren sorrerak Antzinakoaren amaiera ekarri zuten, baina horrek ez zuen eragin aurreko guztiarekiko hausturarik (hizkuntza, erlijioa, legeak, artea...), guztiz kontrakoa baizik, ondare hori izan baitzen etorkizunaren hasiera.

GOMENDIOAK

► Literatura

- *Enda Lur*, Toti Martínez de Lezea.

► Dokumentalak

- *Labarretako artea*, Teknopolis, ETB, 2016.
- *Baskoniako historia bat: Baskoniako herri gerlariak*, ETB.
- *Baskoniako historia bat: Erromano arranoak*, ETB.

► Internet

- www.grottes-isturitz.com
- www.amaroa.com/elezaharrak
- www.arkeolan.com/empresa.php
- www.oiasso.com

ARO HISTORIKOA

Lehen kolonizazioak

K.a. 1.000 >

K.a. 1.000	K.a. 800	K.a. 600	K.a. 500	K.a. 227
Feniziarrek / Gadir sortu	Greziarrek iritsi	Kartagotarrak iritsi	Iberiarrek / Zeltak / Zeltiberiarrek / Tartesotarrak	Kartago Nova sortu

Hispania erromatarra

K.a. 218 >


K.a. 218	K.a. 19
Eszipionen lehorreratzeari	Erromatarrek Hispaniaren konkista amaitu
K.a. 196	
Erromatarrek Baskoniara iritsi	


K.o. 212	K.o. 313	K.o. 409
Hiritartasun erromatarra eman biztanleei	Milango Ediktua, erlijio-askatasuna eta kristautasunaren ofizialtasuna	Sueboen, bandaloen eta alanoen inbasioak

Bisigodoak nagusi

K.o. 456 >

K.o. 414	K.o. 448	K.o. 589	K.o. 653	K.o. 670.
Bisigodoak iritsi	Sueboek Baskonia arpilatu	Rekaredo katolizismora bihurtu	Baskoien armadak Zaragoza arpilatu	Akitaniako Dukerriaren sorrera
K.o. 418	K.o. 581	K.o. 621	K.o. 654	K.o. 711
Bisigodoak Akitanian ezarri	Victoriacum sortu	Erriberri sortu	<i>Liber Iudiciorum</i> aldarrikatu	Arabiarrek Penintsula inbaditu





1. dok. Hominizazio-prozesua. Prozesu horrek Lurrean agertutako espezieak erakusten ditu.

- ▶ Azaldu grafikoak erakusten duen bilakaeraren sekuentzia.

1 Historiaurrea

Historiaurre hitzarekin lehen hominidoen agerpenetik idatzera asmatu zen arteko garaia izendatzen da.

1.1. Paleolitoa (K.a. 1.200.000-5.000)

Paleolitoa Historiaurreko lehen aroa da, luzeena. Paleolitoko gizarteek **ehiza, arrantza, sarraskitzea** eta **bilketa** zituzten bizibide. Urtaroen arabera janariaren atzetik leku batetik bestera aldatzen ziren talde nomadak ziren. **Ekonomia harrapakaria** zuten. Gizabanakoak talde txikitik batzen ziren, oso oinarritzko antolaketa baten bidez. Behin-behineko gordeleketan bizi ziren, eta ez zituzten kobazuloak bizileku finkotzat izan Erdi Paleolitoan sua menderatu zuten arte.

Ikerketa arkeologikoei **hiru aro** bereizten dituzte Paleolitoaren barruan, gizaki moten eta erabiltzen zituzten tekniken arabera.

Behe Paleolitoa (K.a. 1.200.000-100.000)

Aro honetan agertzen dira *Homo* generoko lehen taldeak Penintsulan. Atapuercan (Burgos) aurkitu dira **(3. dok.)** eta espezie berri batekoak dira: ***Homo antecessor***. Horren aztarnak 800.000 eta 1.200.000 urte arteko antzinatasuna dute. Aztarnategi berean beste espezie baten aztarnak ere aurkitu dituzte: ***Homo heidelbergensis***. Horiek duela 350.000 urte agertu ziren eta *Homo neanderthalensis*aren arbasotzat jotzen dira.

Euskal lurraldeetan aurkitutako aztarna bakarrak harriz landutako tresnak dira. Aro honetan, tresnak oso zakarrak ziren: harri zabalak, **chopperrak**, bifazak eta abar. Harriak elkarren aurka kolpekatzen zituzten forma jakin bat emateko.

Atapuerca-ko gain, aztarnategi garrantzitsuak dira Torralbakoa eta Ambronakoa (Soria), Puente Pinokoa (Toledo) eta Bolomorrekoka (Valentzia).

Erdi Paleolitoa (K.a. 100.000-35.000)

Aro honetako lehen gizaki mota, ***Homo neanderthalensis***, K.a. 200.000 eta 35.000 urteen artean bizi izan zen Penintsulan. Sendoa eta altuera txikikoa zen, eta garezur-edukiera handia zuen. Taldeetan bizi zen, nola-halako gizarte-antolaketa batean. Sua ezagutu zuen eta hileta-errituak egin zituen.

Euskal lurraldeetan badira aldi honetako aztarnategi garrantzitsu batzuk: besteak beste, **Lezetxiki** (Gipuzkoa) –*Homo neanderthalensis*aren besahezur bat aurkitu zen han, euskal lurretan aurkitutako hondakinik antzinakoenak– eta **Axlor** (Bizkaia). **(2. dok.)**

Aztarnategi horietan, eta, besteak beste, Cova Negra-koan (Valentzia), Banyoles-koan (Girona), El Sidrónekoan (Asturias) eta Sima de las Palomaskoan (Murtzia), **Moustier aldiko** tresnak aurkitu dira, hots, neandertalei lotutako kultura teknologikokoak.

Goi Paleolitoa (K.a. 40.000-5.000)

Aro honetan agertzen da ***Homo sapiens*** (gaur egungo giza espeziea). Duela 40.000 urte inguru iritsi zen Penintsulara eta lurralde osoan zehar zabaltzen zen, Balear eta Kanaria uharteak barne.

Gizaki mota haren teknologiak hobekuntza handia izan zuen, bai material berriak erabili zituelako (hezurrak, adarrak, itsas maskorrak...), bai teknika landuagoa zuelako tresna espezializatuak egiteko.



2. dok. Aztarnategi nagusien kokalekua.

- ▶ Zer gunetan aurkitu dira giza hondakinak?

BA OTE DAKIZU?

Atapuercako aztarnategia

Atapuercako aztarnategia, Burgos probintzian, munduko garrantzitsuenetako bat da ikerketa arkeologikorako eta antropologikorako.

Aztarna arkeologikorik antzinakoenak duela milioi bat urte baino gehiagokoak dira, Penintsulako Goi Paleolitoaren hasierakoak, eta berrienak Neolitokoak edo are Metal Arokoak.

Tarte zabal horrek bi aro geologiko hartzen ditu: Pleistozenoa eta Holozenoa; aro horietan garai hotzak (glaziazioak) eta tenperatura leunagokoak (interglaziazioak) txandakatu ziren, eta azken garaia epelagoa izan zen. Aldaketa horiek eragina izan zuten Atapuercako ingurumenean eta hango hominidoen eta animalien bizimoduetan.

Aldaketa horiek guztiak islatzen dira aurkitutako aztarna arkeologikoetan, eta ederki erakusten dute inguruko biztanleen eboluzio naturala eta ingurune-egokitzapena.

Gune hau bereziki da garrantzitsua, batez ere, gutxienez lau giza espezieren fosilak aurkitu direlako eta horrek sekuentzia kronologikoa zehazteko aukera bikaina eman duelako.

Fosilen artean espezie berri bat nabarmentzen da, *Homo antecessor* izenekoa, horrek erakusten baitu Penintsulan duela milioi bat urte bazela gizakirik. Horrez gain, *Homo heidelbergensis*aren, *neanderthalensis*aren eta *sapiens sapiens*aren aztarnak ere aurkitu dituzte Atapuercako aztarnategian.



Trenbidearen lubakia

Dolina Handia. Zehazki hamaika indusketa-maila ditu. Hamargarren mailan *heidelbergensis* ehizatarien kanpaleku bat dago, duela 350.000 urte baino gehiagokoa. Hor daude *Homo antecessor*aren lehen aztarnak.

Miguelón izeneko garezurra, *Homo heidelbergensis* batena, 1992an aurkitua Hezurren Leizean.

Elefantearen Leizea. Beheko mailek duela 1.200.000 urte baino gehiagoko aztarnak dituzte. Han aurkitu dituzte Mendebaldeko Europako giza hondakinik zaharrenak.

Lanak ez dira amaitu. 2000. urtean, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zituen Atapuercako aztarnategiak.

Aurkitutako aztarnen arabera, hominido haiek antropofagoak ziren.

Leize Nagusia-Silexaren Galeria gunea. Ia lau kilometro leize-zulo ditu, elkarrekin lotuak. Sarreran, **Portalón** aztarnategia dago, Neolitoko eta Brontze Aroko okupazioen hondakinak dituen; geruza horiek guztiak Mesolitokoan eta Paleolitokoan gainean daude, Mesolitokoak eta Paleolitokoak, antzinakoenak, gunerik sakonenetan baitaude.

Siloaren Koba. 2004an, Brontze Aroko urrezko besoko hori aurkitu zuten Siloaren Koban.

3. dok. Atapuercako aztarnategia.

- Iberiar penintsulako antzinako biztanleei buruzko zer ebidentzia zor zaizkio Atapuercari?

Hezurren Leizea. *Homo heidelbergensis* motako ia hogeita hamar gizakiren hezurrak agertu dira gune horretan.



4. dok. Oihanlekuko harrespil (Gipuzkoa).



5. dok. Soalarreko menhirra (Nafarroa).



6. dok. Mairietxeko trikuharria (Nafarroa Beherea).

- ▶ Begiratu harri izugarri handi horiei, eta pentsatu zer teknologia-maila zuten Neolitoko komunitateek. Zure ustez, nola izan ziren gai halakoak eraikitzeko, eta zer helbururekin eraiki zituzten?

***Mesolitoa edo Epipaleolitoa:**

Historiaurrearen erdialdeko aroa, Paleolitoaren eta Neolitoaren artekoa.

***Trikuharria:** Hilobi-monumentua, zenbait hilotz beren hatuekin gordetzen dituen, eta hileta-errituertarako erabiltzen dena. Ugariak dira Nafarroan eta Gipuzkoan (800 daude).

1.2. Neolitoko gizarteak (K.a. 5.000-2.500)

Neolitoko lehen gizarteak Kristo aurreko bosgarren milurtekoaren inguruan sortu ziren Penintsulan. Aro horretan funtsezko aldaketak izan ziren giza-kien bizimoldeetan, **beren elikagaiak ekoizten hasi baitziren, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bitartez.**

Aldaketa horiek, aldi berean, jarduera berriak sorrarazi zituzten, hala nola ehungintza, zeramika, harrien lanketa eta merkataritza. Laboreen ondoan bizi behar izateak gizakia **sedentario** bihurtzea ekarri zuen. Horrela sortu ziren lehen **herrixka egonkorrak.**

Neolitoko iraultza **Ekialde Hurbileko herriak** Mediterraneoko kostaldera iritsi zirenean hasi zen. Berrikuntzak itsasertzetik Penintsulako gainerako lurraldeetara zabandu ziren. Gero, **Europatik** ere iritsi ziren eraginak.

Penintsulan, Neolitoa bi alditan banatzen da:

- **Hasierako Neolitoan** (K.a. 5.000-3.500), bizitzeko lekuak Mediterraneoko kostaldeko leize-zuloetan ezarri zituzten batik bat: Cova de l'Or (Valentziako Erkidegoa), Nerja (Andaluzia) eta abar. **Zeramika kardialaren kultura** garatu zen, hau da, berberetxo-oskolen (*Cardium edule*) ertzeekin grabatutako apaingarriak egiten zituzten zeramiketan.
- **Neolito betean** (K.a. 3.500-2.500), **benetako herrixkak** sortu ziren, gunela eta laborantzarako egokietan kokatuak.

Euskal lurraldeetako isurialde mediterraneoan, bere egin zituzten aldaketa neolitikoak: nekazaritza eta aire zabaleko habitat sedentarioa (Fuente Hoz, Los Husos eta Peña Larga herrixkak, Araban). Isurialde atlantikoan, berriz, aurreko ohiturei eutsi zieten: kobazuloetan bizi ziren (Arenatza eta Kobeaga Bizkaian, Marizulo eta Herriko Barra Gipuzkoan, Zatoia Nafarroan eta Muliña Lapurdin), eta abeltzaintzan jarduten zuten.

Hileta-errituak **megalitismo** deritzon fenomenoan islatu ziren. Euskal lurraldeetan ugariak dira **trikuharriak***, **menhirrak** eta **harrespilak**.

1.3. Metal Aroa

Metalak lantzen hastea mugarri teknologiko garrantzitsua izan zen garai hartako gizarteetan. Aldi hori hiru arotan banatu da:

- **Kobre Aroa edo Kalkolitoa** da antzinakoena. Penintsulan eta euskal lurraldeetan K.a. 3.000. urtearen inguruan hasi zen, eta K.a. 1.700. urtearen inguruan amaitu. Monumentu megalitiko ugari zeuden eta herrixka harresituak sortu ziren. Kulturarik garrantzitsuenak **Los Millareskoa** (Almería) eta **ezkila-formako edalontziaren** kultura izan ziren. Gipuzkoan zeramikak nabarmentzen dira, Pagobakoitza trikuharrian eta Amalda kobazuloan aurkituak.
- **Brontze Aroa** K.a. 1.700. urtean hasi zen Penintsulan eta euskal lurraldeetan, eta K.a. 1.000. urtearen inguruan amaitu. Herrixkak handitu egin ziren, hala nola **La Hoya** Araban. Kultura hauek nabarmentzen dira: **El Argar**, Almerían; **kutxen zelaiena**, Ebro ibaiaren haranean, Katalunian eta Valentziako Erkidegoan; eta euskal lurraldeetako **megalitikoak** ▶ (4., 5. eta 6. dok.) nahiz Balear uharteetako; azken horren adierazgarri dira talayotak, navetak, taulak eta abar.
- **Burdin Aroa** K.a. 1.000. urtearen inguruan hasi zen Penintsulan eta euskal lurraldeetan. Aldi horretan hasi zen aro historikoa deritzona, zeltek eta lehen herri kolonizatzaileek abiarazita. Zeltak Pirinioak zeharkatuta sartu ziren, eta lehen herri kolonizatzaileak, hau da, feniziarrek, greziarrak eta kartagotarrak, Mediterraneotik.

1.4. Labar-arte

Iberiar penintsulako lehen adierazpen artistikoak Goi Paleolitoan egin ziren (K.a. 40.000. eta 10.000. urteen artean), Kantauri aldean; horregatik, **labar-arte kantauriarra** deritze.

Altamiran eta **El Castillon** (Kantabria) eta **Tito Bustillon** (Asturias) egin-dako margolanak nabarmentzen dira bereziki. Euskal lurraldeetan, aipagarriak dira bereziki kobazulo hauetako margolanak eta grabatuak: **Ekain** eta **Altzerri** (Gipuzkoan), **Santimamiñe**, **Atxurra** eta **Armintxe** (Bizkaian), eta **Etxeberriko karbia**, **Sasiziloaga** eta **Sinhikoleko karbia** (Zuberoan).

► (7. dok.)

Margolan horiei, leize sakon eta ilunetan eginak gehienak, motibazio magikoak (ehizari edo ugalkortasunari mesede egitea) edo erlijiosoak (santutegi-leizeak) egotzi izan zaizkie.

Margolan horiek ezaugarri hauek dituzte:

- Gaiari dagokionez, animalien figura bakartuak dira nagusi, naturalismo handiz eginak. Baina badira zeinu abstraktuak eta eskuen estanpazioak ere.
- Teknikari dagokionez, koloreen konbinazioak erabiltzen dira, hau da, polikromia.

Aurrerago, **Mesolitoaren** edo **Epipaleolitoaren*** eta Neolitoaren hasieraren artean (K.a. 7000. eta 4000. urteen artean), Mediterraneoko isurialdean **Levanteko labar-arte** deritzona garatu zen, bere ezaugarri propioekin eta labar-arte kantauriarrarekiko batere zerikusirik gabe. **Valltortako** (Castelló) eta **El Coguleko** (Lleida) margolanak dira bereziki nabarmentze-koak.

Nahiko ondo argiztatutako harpeetan daude eginda margolan horiek, eta oso ezaugarri desberdinak dituzte Kantauriko isurialdekoekin alderatuz gero; adibidez:

- Gaiari dagokionez, giza figurek dute lehentasuna, eta askotariko eszenetan ageri dira, zentzu narratibo argi batez: armekin borrokan, zenbait animalia ehizatzen, eztia biltzen eta abar.
- Teknikari dagokionez, figurek oso forma estilizatuak dituzte, ia-ia eskematikoak, eta monokromoak edo kolore gutxi konbinatuz eginak dira, okrea eta beltza besterik ez ia.

JARDUERAK

1. **Definitu:** karrakailua, nekropolia, ekonomia harrapakaria.
2. **Alderatu** Penintsulako gizaki-mota paleolitikoak.
3. **Azaldu** Neolitoaren ezaugarriak, eta zer desberdintasun dituen Paleolitoarekin alderatuta.
4. **Identifikatu** Metal Aroan Penintsulan eta euskal lurraldeetan izandako kultura nagusiak.
5. **Ikertu** Interneten zer garrantzi izan duten Bizkaiko Atxurra eta Armintxe aztarnategietan egin diren labar-artearen azken aurkikuntzek.

7. dok. Sinhikoleko karbia (Zuberoa) eta Ekain (Gipuzkoa) kobazuloetako zaldiak.

- Ba al dago forma-antzekotasunik bi figuren artean? Bilatu Historiaurreko ugalkortasun-errituei buruzko informazioa eta azaldu figuretako bakoitza.

BA OTE DAKIZU?

Zuberoako labar-pinturak

Arbailako mendigunea Pirinioetako mendebaldean dago, Zuberoako erdialdean, kostaldetik 50 kilometro ingurura. Han, Historiaurrean gordeleku gisa erabilitako kobazulo asko daude, eta haietako hirutan labar-artearen adierazpenak aurkitu dira.

Sistema espeleologiko bereko hiru kobazulo dira, elkarren artean oso desberdinak, baina guztien kronologia Madeleine aldiari dagokio, hots, duela 16.500-11.000 urtekoak dira.

Etxeberriko karbiako margolanak 1950ean aurkitu zituzten, eta grabatuak 1981ean. Irsten oso zailak diren lekuetan daude. Zaldien irudiak dira nagusi, eta badira basahuntzak eta bisonteak ere. Erdi Madeleine aldikoak dira.

Sasiziloagako irudiak 1952an aurkitu ziren. Haitzulo txikia da, eta figurak hondoan daude, pertsona bakarra sartzeko moduko leku batean. Bi bisonte gorri dira, interakzioan, eta kolore bereko orban batzuk, ziur asko garai berean eginak. Behe Madeleine aldikoak dira.

Sinhikoleko karbiako irudiak 1971n aurkitu zituzten, bazter bateko areto txiki batean. Zaldi bat, bisonte bat eta animalia ezezagun baten burua ikus daitezke, beltzez eta marroiz margotuak. Behe Madeleine aldikoak dira.



2 Erromatarren aurreko herriak

2.1. Iberiarrak, zeltak eta zeltiberiarrak

Kristo aurreko lehen milurtekoan, bi kultura sortu ziren Penintsulan, desberdinak baina elkarrekin nahiko lotuak: **kultura zelta** eta **iberiarra**. Ia ez zuten eraginik izan euskal lurraldeetan. ▶ (8. eta 9. dok.)

Zelten eta iberiarren arteko kontaktua sendoa izan zenez, zelten eta iberiarren arteko elkarguneetan bien ezaugarriak batzen zituen kultura bat sortu zen, **zeltiberiarra** deritzona.

Iberiarrak

Iberiarrak Penintsulako hegoaldean eta Mediterraneoko kostaldean ezarri ziren. Ezaugarri komun asko zituzten iberiar herriek, baina ez zuten beren arteko batasun politiko formalik gauzatu. Izaera kultural komun oso nabarmena izan zuten hala ere, batez ere K.a. VII. eta II. mendeen artean garatua.

Haien ekonomia nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritzen zen batez ere. Horrez gain, iberiarrek merkataritza-jarduera garrantzitsua garatu zuten; greziarrek, feniziarrek eta kartagotarrek harremanak izan zituzten; eta **beren moneta sortu** zuten.

Iberiar gizarteak **tribala** zen eta botere ekonomiko eta militarren arabera hierarkizatuta zegoen. **Herriak** defendatzeko errazak ziren lekuetan ezartzen zituzten, harresiz inguratuta.

Antolaketa politikoa nahiko garatuta zeukaten, feniziarrek eta greziarrek ekarritako **estatu-hiriaren** ereduaren eraginari esker. Estatu bakoitzak zenbait hiri har zitzakeen barruan, haien inguruko lurraldeekin batera. Eredu politiko ohikoena **monarkia** zen.

Iberiarren garapen kulturala esanguratsua izan zen. Hori ikertzeko, funtsezkoak dira **nekropoliak**, oso ugariak eta herriketatik gertu kokatuak. Elementu kultural nagusiak hauek dira:

- **Idazkera.** Hizkuntza komun baten adierazpidea zen, baina alfabeto desberdinekin idazten zuten. Gaur egun haien idazkera irakurri egin daiteke, baina ulertu ez.
- **Erljioa.** Greziarren eta kartagotarren eragin nabarmenak izan zituzten, eta arbasoengandik jasotako sinesmen zaharrek nahasi zituzten.
- **Artea.** Greziarren eta kartagotarren artearen eragin handia izan zuen. Arte figuratiboa zen, **erlijio- eta hileta-funtzioetarako** erabilia batik bat. Garrantzi berezia izan zuen eskulturak: giza eta animalia-figurak egin zituzten, hala errealak nola alegiazkoak. Pieza ezagunenetako batzuk hauek dira: Elxeo Dama, Bazako Dama, Balazoteko Piztia, Moixenteko Gerraria...

Zeltak

Zeltak Penintsulara lehen milurtekoaren hasieran iritsitako herri indoeuropar bateko kideak ziren. Europako erdialdetik etorri ziren eta Iparraldeko goi-lautada eta Penintsulako ipar-mendebaldea hartu zituzten: Galizia, Portugalgo iparraldea, Asturias...

Aurrerapen tekniko ugari ekarri zituzten; burdinaren metalurgiaren erabilerara, adibidez. Haien bizilekurik esanguratsuenak **kastroak** izan ziren.


▶ (11. dok.)



8. dok. Erromatarren aurreko herriak Baskonian.


Metal Aroaren amaieratik, euskal lurraldeetan zenbait tribu bizi ziren: akitanianak, baskoiak, barduliarrak, karistiarak, autrigoiak eta beroiak. Mendiak zituzten bizileku, eta leinutan antolatuta zeuden. Eredu atlantikoan batez ere abeltzaintzan aritzen ziren, eta hegoaldean eta Akitanian, berriz, nekazaritzan. Herri horiek ia ez zuten iberiarren, zelten eta zeltiberiarren eragin kolonizatzailearik izan, eta beren hizkuntza gorde zuten: euskara.

- ▶ Bilatu Interneten iparraldeko (*saltus*) baskoien eta hegoaldeko (*ager*) baskoien arteko desberdintasunei buruzko informazioa. Zer ezaugarri komun zituzten?



9. dok. Las Eretas herrixka baskoia.

- ▶ Nola zeuden antolatuta etxeak Las Eretas herrixkan? Deskribatu hirigintza-ezaugarriak.
- ▶ Bilatu herrixka baskoiei buruzko informazioa; esate baterako, hauei buruzkoa: Las Eretas, Alto de la Cruz eta Iruña. Non eraikitzen zituzten herriak? Zergatik dakigu baskoiek merkataritza-harremanak zituztela Penintsularekin eta Mediterraneorekin? Zer hileta-erritu egiten zen herrixka baskoietan?



Zelten jarduera nagusia **abeltzaintza** izan zen, baina nekazari-herrixkak ere izan zituzten.

Zeltak ikertzeko, oztopo handi bat dago: iturrien urritasuna. Haiekiko erreferentziak iturri erromatarretakoak dira, eta erreferentzia horiek diote primitiboak eta gerrazaleak zirela.

Eskuarki onartua da haien gizartea **tributan** antolatzen zela, hizkuntza indoeuroparrak hitz egiten zituztela eta ez zutela idazkerarik.

Zeltiberiarrek

Zeltak eta iberiarrak elkartzen ziren lurraldean (Iberiar sistema, Iberiar goi-lautadaren ekialdea eta Erdialdeko Sistema) ezaugarri bereziak zituen kultura bat sortu zen. Bien ezaugarriak zituen, baina eragin zelta nagusi izanik.

Gerrari bikainak izan ziren eta arma-teknologia aurreratua erabiltzen zuten. Gerrarien aristokrazia izan zen talde nagusia. Kartagotarrek eta erromatarrek beren armadetan hartu zituzten.

2.2. Mediterraneoko lehen kolonizatzaileak

Kristo aurreko lehen milurtekoaren hasieraz geroztik, Mediterraneo itsasoaren ekialdetik etorritako indar kolonizatzaile batzuk ezarri ziren Iberiar penintsulan. ▶ (10. dok.) Arrazoi geostrategikoek eta lurraldearen aukera ekonomikoak eragin zuten olde kolonizatzaile hori.

■ **Feniziarrek**, egungo Libanotik iritsitako herri merkataritza bateko kideek, kolonizatu zuten aurreneko Penintsula. Gadir (Cádiz) hiria sortu zuten K.a. IX. mendearen inguruan, eta handik Andaluziako eta Portugalgo hegoaldeko itsasertzetara hedatu ziren. Kokapen estrategikoaren ondorioz –Mediterraneo itsasoaren eta Ozeano Atlantikoaren artean zegoen, eta Afrikatik gertu–, lurraldea oso ona zen merkataritzarako; horrez gain, metal ugari zeukan. Horren ondorioz, hura kontrolatzeko interes handia sortu zen.

10. dok. Erromatarren aurreko Hispania.

- ▶ Zer herri bizi izan ziren Hispanian aro horretan?
- ▶ Zergatik esaten dugu, feniziarrei, greziarrei eta kartagotarrei buruz hitz egitean, herri kolonizatzaileak zirela? Nondik etorri ziren?
- ▶ Penintsulako zer lekutan ezarri ziren herri kolonizatzaileak?



11. dok. Baroñako kastro zelta, Coruñan.

- ▶ Nolakoak ziren kastroak, zure ustez?



12. dok. Feniziar sarkofagoa.

- Zer ikusten da irudi honetan? Deskribatu.

***Emporioa:** Leku askotako jendea merkataritzan aritzeko biltzen den herrixka edo hiria.



13. dok. Alisedako tartesotar altxorra.

- Deskribatu irudia.
- Zer garrantzi zuen meatzaritzak tartesotarentzat? Azaldu.

- Aurrerago, K.a. VIII. mendearen inguruan, **greziarrak** iritsi ziren. Nahiko gune garrantzitsuak sortu zituzten Penintsulako Mediterraneoko kostaldearen iparraldean: Emporion (Empúries), Rhode (Rodes) eta abar. Handik itsasertzeko beste gune batzuetara zabaldu ziren, hala nola Mainakera (Málaga) gertu. Metalak, espartzua, oliba-oilua eta gatza lortzeko merkataritza-harremanak izatea izan zuten helburu nagusia.
- K.a. VI. mendean, **kartagotarrak** Penintsulako hegoaldea kontrolatzen hasi ziren, feniziarrek gune hartan izan zuten nagusitasunari jarraipena emanez eta gunea ekialderantz eta iparralderantz zabalduz. K.a. III. mendetik aurrera, haien presentziak konkista militar baten ezaugarri guztiak izan zituen. Zenbait **emporio*** sortu zituzten, hala nola Ebusus (Eivissa) –feniziar jatorrikoa– eta Quart Hadasht edo Kartago Nova (Cartagena).

Herri horiek guztiek elementu kultural eta teknologiko berriak zabaldu zituzten, ordura arte Penintsulan zeudenak baino aurreratuagoak. Goldea, dirua, eredu urbanistikoak, gazitzea eta burdinaren metalurgiaren erabilera zabaldu zituzten, besteak beste.

2.3. Tarteso

Tartesotar kulturak K.a. VIII. eta VI. mendeen artean jo zuen goia, eta Andaluziako mendebaldean izan zuen **erdigune geografikoa**, baina Hegoaldeko goi-lautadan eta Extremadura Beherean zehar ere zabaldu zen.

Tartesotarren ikerketarako dagoen iturri nagusia, greziar historialarien erreferentziez gain, aurkitutako ondare arkeologiko urriak dira: santutegiak, hala nola Cancho Roanokoa, Badajozen; botozko altxorrak, hala nola El Carambolokoa, Sevillan; eta hilobiak, hala nola La Joyako nekropolia, Huelvan.

Ekonomiaren oinarria **meatzaritza** (zilar-, kobre- eta urre-erazketak), abeltzaintza eta **brontzearen erabilera metalurgikoak** ziren. ► (13. dok.) Horrez gain, feniziarrek eta greziarrak Penintsulako mendebaldeko herriekin kontaktuan jarri zituen nazioarteko merkataritza-gunea ere izan zen Tarteso.

Herri horien arteko harremanak oso sendoak ziren, eta historialari batzuek diote tartesotarren eta feniziarren arteko bat-egite kulturala erabatekoa izan zela.

Politikoki, Tarteso ez zen batasun bat izan; **botere-gune anitz** izan zituen.

K.a. VI. mendetik aurrera, kultura horren gainbehera eragin zuten zenbait faktorek; **kanpokoak** ziren faktore horietako batzuk, hala nola Kartagoren botere gero eta handiagoa eta brontzearen ordeztu erabiltzen hastea; **barrukoak** beste batzuk, meatzeak agortzea, adibidez.

JARDUERAK

- Definitu:** tribua, estatu-hiria, arte figuratiboa, herri indoeuroparra, kolonizazioa.
- Alderatu** iberiarren eta zelten gizarte- eta ekonomia-ezaugarriak.
- Azaldu** herri kolonizatzaileek zer interes nagusi zituzten Penintsulako lurraldean.
- Identifikatu** tartesotar kulturaren ezaugarri nagusiak.
- ★ **Ikertu** Interneten zer esan zuen Estrabon greziar geografoak baskoiei buruz, *Geografia III* lanean.

3 Hispania erromatarra

3.1. Erromatarren konkista

Erromatarren konkista deritzo Erromatar Inperioak K.a. 218. urtean Iberiar Penintsula mendean hartu eta K.a. 19. urtera arte haren gainean ezarritako kontrol militarri. ► (15. dok.) Euskal lurraldeetan, karistiarrek, barduliarrak eta autrigoiak erromatar konkistaren aurka borrokatu ziren, eta antzinako bizimoduak eutsi zieten, erromatarrek egon ziren bost mendeetan zehar; hegoaldea eta Iparraldearen zati bat, berriz, azkarrago erromanizatu ziren.

► (14. dok.)

Bigarren Gerra Punikoa (K.a. 218-197)

Erroma K.a. III. mendean hasi zen Penintsularen inguruko interesa izaten, Kartagoren aurkako Bigarren Gerra Punikoaren testuinguruan. K.a. 237. eta 218. urteen artean kartagotarrek Penintsulako hegoaldearen eta hego-ekialdearen zatirik handiena menderatu zuten, eta **beren lurraldearen muga Ebro ibaian** ezarri.

Zabalkunde hori ez zettorren bat Kartagoren mendeko gunean egon arren Erromaren aliatu ziren hiri batzuen interesekin. Hori izan zen **Saguntoren** kasua, adibidez; Anibalek K.a. 219. urtean konkistatu zuen eta, horren ondorioz, Bigarren Gerra Punikoko *casus belli* (gerrarako arrazoi) bihurtu zen.

Erromatarren presentzia militarra K.a. 218. urtean hasi zen, Emporionen (Empúries), **Publio Kornelio Eszipion** buru zela. Etapa horretan, tropa erromatarrek kartagotarrak garaitu, eta Penintsulako Mediterraneoko kostalde osoa, Guadalquivir ibaiaren harana eta Ebro ibaiaren haranaren zati bat konkistatu zituzten.

Penintsulako barnealdearen konkista (K.a. 197-29)

Geroago, Erromaren interes nagusia Penintsulako barnealdearen konkista izan zen. Penintsulako herrien aurkakotasun gogorra aurkitu zuten, zeltiberiarrena eta lusitaniarrena batik bat. Zailtasun horren adibide da Numantzia hiria erresistentzia. Gerra horien ondorioz, Penintsula ia osoa erromatarren pean geratu zen.



14. dok. Erromatarrek euskal lurraldeetan.

Erromatarrek bi arrazoi nagusi izan zituzten euskal lurraldeetan ezartzeko interesa izateko: meatzaritza, eta itsasoko nahiz lehorreko bideak kontrolatu nahia. [...] Erromatarren aurreko euskal herriek askotariko harremanak izan zituzten konkistatzaileekin: erresistentzia, lankidetzak ere bai... [...]

Erromatar hondakinak ugariak diren eremuetan –batetik, *ager vasconum*-en edo hegoaldeko eremu landuan (Ebro ibaiaren haranaren inguruko ordokiak) eta bestetik, Akitaniako erdialdean eta iparraldean–, erromanizazioa mediterraneo motakoa izan zen, hots, nekazaritza-teknika berriak garatu ziren, hala nola lugaloria eta ureztatzea. [...]

Saltus vasconum edo iparraldeko eremu landugabeen (Kantauri itsasora isurtzen diren ibaien haranak), erromanizazioa atlantiko motakoa izan zen: ekonomia-ustiapeneko teknika eta sistema berriak ezarri ziren (meatzaritza, basogintza eta itsas jarduerak), bai eta dirua (denarioa) oinarri zuen ekonomia ere.

Eusko Ikaskuntza
Isturitz, 1996 (moldatua)

► Bilatu euskal lurraldeak zeharkatzen zituzten galtzada erromatarrei buruzko informazioa. Zer eremutan aurkitu dira hiri eta bizileku erromatar gehien?

► Zure ustez, zergatik ez zen homogeneoa erromatarren kokapena euskal lurraldeetan?

15. dok. Hispaniaren konkistaren faseak.

► Zenbat denbora behar izan zuten erromatarrek Penintsula eta Balear uharteak konkistatzeko?



16. dok. Augusto enperadoreak K.a. 19. urtean amaitu zuen Hispaniaren konkista.

- Zer ondorio izan zituen erromatarrek Hispaniaren konkista amaitzeak?



17. dok. Oiassoko portua.

Erromatarren portu-sarea garrantzi handikoa izan zen euskal lurraldeetan. Horren adibide da Oiassoko portua, Bidasoa ibaiaren bokalean kokatua.

Oiasso izan zen mea-garraiorako nahiz merkataritza-trukeetarako portu garrantzitsuenetako bat, Atlantikoko beste portu erromatar batzuk bezala, hala nola Lapurdum (Baiona) eta Burdigala (Bordele).

- Aiako Harria mendigunean, Ariturriko erromatar zilar-meategiak aurkitu dira. Ikertu horri buruz. Azaldu meategiaren eta Oiassoko portuaren arteko erlazioa, eta identifikatu garai hartan euskal lurraldeetan egon ziren beste portu eta meategi batzuk.

Kantauri aldeko herrien menderakuntza (K.a. 29-19)

Lurralde honen menderakuntza Kantauriar Gerrekin hasi zen (K.a. 29-19); gerra horien amaieran, Augusto enperadoreak nahiko modu efektiboan zituen kontrolatuta kantabriarrak, asturak eta galaikoak. ► (16. dok.)

Lurraldea ziurtatzeko, Erromak zenbait kanpamentu militar sortu zituen, hala nola Asturica Augusta (Astorga) eta Legio (Leon); gero, hiri bihurtu ziren kanpamentu horiek.

Horrela, Iberiar penintsula osoa Erromatar Inperioaren parte bihurtu zen; dena den, integrazioa sendoagoa izan zen Mediterraneoko kostaldean eta Guadalquivir ibaiaren haranean.

3.2. Gizarte hispano-erromatarraren erromanizazioa

Erromanizazioa deritzo erromatarren aurreko herriek Erromaren eredu ekonomikoa, soziala, politiko-administratiboa, kulturala eta erlijiosoa **bereganatzeko prozesuari**.

Prozesu hori era askotako tresnen bitartez gertatu zen: armada, hiriak, ekonomia, komunikazioak, gizarte- eta bezero-harremanak, kultura eta abar.

Gisa horretan, latina zabaldu zen, janzteko moduak eta ohiturak aldatu ziren eta zigor-kode berri bat garatu zen.

Erromanizazioa konkistatzaileek ezarritako prozesu bat izan zen, baina **tokian tokiko eliteen babesa ere izan zuen**, Inperioan integratzeko interesa izan baitzuten, beren pribilegioak ez galtzeko.

Ekonomia hispano-erromatarra

Hispania erromatarrak garapen ekonomiko handia izan zuen, eta ez zuen hazkundera gelditu K.a. III. mendera arte. Erromatarrek **ekoizpen-sistema arrazionalizatzea eta koordinatzea** lortu zuten, eta hobekuntza teknikoak txertatu zituzten nekazaritza-, abeltzaintza- eta meatze-ustiapenetan.


Gainera, **Penintsulako ekonomia** Erromatar Inperioaren **merkataritza-ibilbideetan sartzeak** bultzada handia eman zien bai merkataritza-jarduerari, bai salgai askoren ekoizpenari, gero erromatarren merkatu zabalera esportatzeko.

Ekonomia erromatarra **esklabista** zen: ekoizpen- eta zerbitzu-jardueretako asko esklaboek lanari lotuta zeuden; esklabo gehienak herri konkistatuetako biztanleak edo haien ondorengoak ziren.

Ekonomia monetario eta hiritarra

Erromatar Inperioaren ekonomiak hura osatzen zuten guneen arteko **merkataritza-trukeak** zituen oinarri, eta horretarako ezinbestekoa zen gunek horiek oso ondo konektatuta egotea. Lehorreko zein itsasoko komunikabide-sare bikain batek elkarrekin harremanetan jartzen zituen eskualdeak eta hiriak. Hirigintzak izandako garapena hiriek merkataritza-ekonomia horretan zuten garrantziaren ondorio izan zen. ► (18. dok.)

Merkataritzaren garapenari bultzada handia eman zion beste elementu bat erromatar denarioan oinarritutako **ekonomia monetarioa** izan zen; denarioak nazioarteko moneta gisa funtzionatzen zuen. Hispanian hiri askotan egin ziren txanponak.



Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak

Nekazaritzak **Mediterraneoko hiru produktu nagusiak** zituen oinarri: **garia, mahatsa** eta **olibondoa**. Gariaren ekoizpena garrantzitsua zen, baina ez zen kantitate handietan esportatu; bai, aldiz, ardoa eta, bereziki, oliba-olioa. Abeltzaintza-ekoizpena askotarikoa zen, baina indarrik handiena ardi-aziendarenak zuen.

Erromatarrek berrikuntza teknologikoak txertatu zituzten, hala nola lugorria eta ureztatzea. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen motarik zabalduena **villa** zen, hau da, ustiategi latifundista handi bat, esportatzeko ekoizten zue-na, horretarako esklaboak erabiltza.

Arrantza ere garrantzitsua izan zen. Arrantzatik zenbait jarduera eratorri ziren, hala nola gazitzeak, gatzaren ekoizpena eta *garum* zeritzon saltsa prestatzea.

Meatze-jarduerak

Penintsula oso aberatsa zen meategietan: **zilarra** eta **beruna** Cartagenan, **kobrea** Andaluzian eta Asturiasen, **merkurioa** Almadénen, **urrea** Galizian eta Leonen, **eztainua** Galizian, eta **burdina**, **zilarra** eta **beruna** euskal lurraldeetan. ▶ (17. dok.)

Erromatar Inperioa zen meategi handi gehien **jabea**, baina meategi pribatuak izateko baimena ere ematen zuten; eskuarki, meategi pribatuak txikiak izaten ziren.


Gizarte hispano-erromatarra

Gizarte-eredu hispano-erromatarra bi ezaugarri nagusik definitu zuten: **gizon libreen** eta **esklabo**en arteko bereizketaren ondorioz **desberdintasun juridikoak izateak**, eta **elite indigenen integrazioak** ▶ (19. dok.) Premisa horietan oinarrituta, zenbait talde bereizten dira:

- Hierarkiaren goiko erpinean erromatar hiritarrak zeuden, latifundio handien jabeak eta oso aberatsak. **Senatarien Ordenako** kideak ziren.

18. dok. Erromatar Inperioaren merkataritza-sarea.

- ▶ Zer salgai bideratzen zituen Hispaniak Erromatar Inperioaren merkataritza-sarera?



19. dok. Gizarte hispano-erromatarra.

- ▶ Zer taldek osatzen zuten gizarte hispano-erromatarra? Deskriba itzazu.



20. dok. Hispaniako probintziak.

- ▶ Deskribatu Hispaniaren banaketa administratibo horietako bakoitzari dagokion testuinguru historikoa.

- Beherago, **zaldunak** zeuden, herri menderatuetako aristokraziako kideak gehienak; hirietako zein probintzietako kargu politikoak (magistraturak) kontrolatzen zituzten. Senatariekin batera, aristokrazia osatzen zuten.
- Gizon libreen talderik apalena **plebea** zen, nekazaritza- eta artisautza-arloetako jabe txikiek eta langile libreek osatua.
- Guztien azpian, **esklaboak** zeuden; ez zuten ez eskubiderik ez askatasunik.

Familia patriarkala zen. Senarrak guraso-agintea zuen familiako kide guztien gainean, eta horrek familiari zegozkion kontu guztien inguruko erabakiak hartzeko ahalmen osoa eta obeditua izateko eskubidea ematen zizkion.

Emakume erromatarra senarraren mendekoa zen. Hala ere, erromatarren garaiko beste zibilizazio batzuetan baino askatasun-maila handiagoa zuen. Emakumeak familian zituen zeregin guztiak etxeari lotuta zeuden: etxearren mantentzeaz arduratzea eta seme-alabak zaintzea. Senarra falta zenean soilik zuen familiako gainerako kide guztien gaineko aginte osoa. Dibortzioa legez araututa zegoen.

Lurraldearen batasuna

Hispaniaren oinarri politiko-administratiboa sendoa zen; elkarren artean ondo komunikatutako hirien sare trinko bat zen horren funtsa.

Antolaketa administratiboa

Penintsulako lurraldea administratzeko, erromatarrek beren ohiko irizpidea erabili zuten: **probintzia-mugaketa**. ▶ (20. dok.) Hispania zenbait probintzian banatu zen, eta gobernadore batek eta kontseilu batek zuzentzen zuten haietako bakoitza. Euskal lurraldeak Tarraconensis probintzian sartuta geratu ziren.

Bi probintzia mota zeuden: **senatarialak**, Erromako Senatuak kontrolatuak, Betika adibidez; eta **inperialak**, enperadorearen aginte zuzenaren pean zeudenak, hala nola Tarraconensis eta Lusitania. Horien kopurua aldatu egin zen erromatarren mende izandako garaian zehar:

- Konkistaren hasieran (K.a. II. mendea), Hispania bi probintzian banatu zen: Ulterior (gaur egungo Andaluzia eta Penintsulako mendebaldea) eta Ziterior (Mediterraneoko kostaldea eta Ebro ibaiaren harana).
- Augustoren garaian (K.a. 27. urtea) hiru probintzia sortu ziren: Betika, hiriburu Corduba (Kordoba) zuela; Lusitania, hiriburu Augusta Emerita zuela, gero Emerita Augusta (Mérida) izango zena; eta Tarraconensis, hiriburu Tarracon (Tarragona) zuela.
- K.o. III eta IV. mendeetan, probintzien mapa aldatu egin zen. Probintziak txikiagoak eta ugariagoak egin ziren: Gallaecia, Carthaginiensis, Tarraconensis, Lusitania, Betika eta Balearika. Dioklezianoren gobernuaren garaian, gora-goko unitate administratibo batean integratu ziren: Hispaniako diozesia.

Hirien eta komunikabideen sarea

Erromatar zibilizazioa **hiritarra** izan zen funtsean. Hiriak gero eta ugariagoak eta handiagoak izan ziren. Emerita Augusta, Caesaraugusta (Zaragoza), Hispalis (Sevilla) eta Tarraco izan ziren horietako batzuk.

Hiri erromatarrek **gune ekonomiko** eta **politikoak** ziren, eta beren landa-ingurua ere antolatzen zuten. Gehienek erromatarren aurreko herrien gizarteetan ezin pentsatuzkoak ziren **zerbitzuak** eskaintzen zizkieten biztanleei: akueduktuak, antzokiak, foroak, termak eta abar.

Erromatarrek bide-sare bikaina sortu zuten, **galtzadetan** oinarritua. Sare horrek ahalbidetzen zuen lurraldea antolatzea, lurraldearen kontrol militar eta administratiboa ziurtatzea eta hiriak elkarrekin lotzea. Merkataritzaren garapena indartzeko ere baliagarria izan zen.

Erromatar kultura bereganatzea

Hizkuntza, artea, zuzenbidea eta erlijioa izan ziren Hispania erromatar kulturen integratu izanaren adierazle nagusiak. Lau alderdi horiek gaur egun ere bizirik jarraitzen duen kultura-ondare azpimarragarria utzi dute.

- **Latina** prestigiozko hizkuntza gisa zabaldu zen. Batez ere idatzizko hizkuntza gisa hedatu zen, eta hizkuntza autoktonoei nagusitu zitzaion. Euskarari dagokionez, latinean jatorria duten hitz asko daude toponimian nahiz lexikoan.
 - Arte-adierazpenak ugariak dira; baina garrantzitsuenak, **arkitektura-** eta **mosaiko-lanak**. Arkitekturari dagokionez, nabarmentzekoak dira obra handiak (akueduktuak, antzokiak, zubiak, galtzadak, uraren kanalizazioa, kale harritatuak, gotorlekuak, tenpluak, mausoleoak eta oroipen-arkuak). Mosaikoak oso ugariak dira; gai mitologikoak zein geometrikoak, paisaiak, egunero bizitzako eszenak eta abar irudikatzen dituzte.
 - **Erromatar zuzenbidea** Penintsula osoan zabaldu zen. Harreman pribatuak eta erakunde politikoen funtzionamendua arautzen zituen. Dena den, euskal lurraldeetako iparraldeko herriek ohiturazko zuzenbideari eutsi zioten, bai eta jatorrizko abeltzaintza-artzaintzako erregimenari ere.
 - Erromatarren menderakuntzak Erromatar Inperioko berezko **erlijio-sinesmenak** ere ezarri zituen. Tokian tokiko sinesmenak eta gurtza tradizional paganoak errespetatu ziren, baina derrigorrezkoa zen enperadorea eta Erromako boterea sinbolizatzen zuten hiru jainko-jainkosak gurtzea: Jupiter, Juno eta Minerva. Erlijioa integrazio politikorako tresna gisa erabili zen.
- Geroago, K.o. III. mendetik aurrera, **kristautasuna** ere zabaldu zen Hispanian. Milango Ediktuak (313) erlijio-askatasuna aldarrikatu eta legez aitortu zuen kristautasuna ➤ (21. dok.), eta Inperioko Eliza ofiziala bihurtu zen Teodosio I.a enperadorearekin, 380. urtean.

3.3. Inperioaren krisia

K.o. III. mendetik aurrera, Erromatar Inperioa arazo larriak izaten hasi zen; horrek ekarriko zuen inperioaren gainbehera.

Zehazki, zenbait prozesu **ekonomiko**, **politiko** eta **militarrek** inperio osoko erakundeak ahultzearen ondorio izan zen krisia.

- Arrazoi ekonomikoen artean, garrantzitsua da **esklaboek eskulana urritu izana**, konkista-gerren amaieraren ondorioz. Ekoizpen-jarduera asko garestitzea eragin zuen horrek, eta jarduera horiek gainbehera handia izan zuten. Horrez gain, herri barbaroak Inperioan sartzeak **merkataritza-harremanak zaildu zituen**. Hori dela eta, hiriak ahuldu eta biztanlez husten hasi ziren.
- Arrazoi politiko eta militarren artean nabarmentzekoak dira **botere inperialaren ezegonkortasuna** eta **armadak** herri barbaroen erasoei aurre egin **ezina**. Probintziek beren kabuz egin behar izan zieten aurre kanpotik heldutako erasoei, gerra zibilei eta krisi ekonomikoari.

Erromatar Inperioaren **ondoko herriek** krisia baliatu zuten haren lurraldeetan sartzeko.

21. dok. Milango Ediktua.

Nik, Konstantino Augustok, bai eta nik ere, Lizinio Augustok, ordu onean Milanen bilduak [...] uste izan dugu gure betebeharrak zela mintzatzea, gure arreta merezi zuten gainerako gaiekin batera, dibinitatearekiko errespetuari buruz, hartara eskumena emateko hala kristauei nola gainerako guztiei, norberak nahi duen erlijioari atxikitze-ko, halako moldez non zeruan bizi den jainko edo jainkosa oro aldeko izan dakigun guri zein gure agintearen mendeandauden guztiei [...].

Milango Ediktua edo *Edictum Mediolanense*,
313. urtean aldarrikatua

- Zer ondorio izan zituen Milango Ediktuak Hispaniako biztanleentzat?

JARDUERAK

- Definitu:** Gerra Punikoak, ekonomia monetarioa, *garuma*, familia patriarkala, mausoleoa, gurtza paganoa, ohiturazko zuzenbidea.
- Azaldu** Iberiar penintsulan erromanizazioa gertatu izanaren arrazoiak.
- Identifikatu** erromatar kulturaren zer ezaugarri bereganatu ziren euskal lurraldeetan erromanizazioan.
- Aztertu** Erromatar Inperioaren III. mendeko krisiaren arrazoiak eta ondorioak.
- Baloratu** hiriaren rola ekonomia hispano-erromatarrean.

22. dok. Baskonia inbasioen aurrean.

Germaniar herrien presioaren ondoren, Baskonia bi erresuma indartsuz inguratuta geratu zen: iparraldean frankoak, eta hegoaldean bisigodoak. Bisigodoek euskal lurraldeetan zabaldu nahi zuten, Penintsulako eta kontinenteko komunikazio-bideak kontrolatzeko, baina sarraldi labur bat baino ez zuten egin. [...] Leovigildo errege bisigodoak Victoriacum (Vitoria-Gasteiz) sortu zuen 581ean [...].

Euskal lurraldeetako Iparraldeko biztanleek, frankoekin batuta egon arren, harreman sendoak izan zituzten baskoiekin, arlo militarrean batez ere, bisigodoei aurre egiteko. 670ean, Akitaniako Dukerria sortu zen; hango biztanleak baskoia nahiz akitaniarrak ziren.

- Zer ondorio izan zituen baskoiek eta akitaniarrek bisigodoei aurre egiteko bat egin izanak?

4 Bisigodoen Erresuma

III. mendetik aurrera Inperioak izandako ahultasun ekonomiko eta militarra baliatuta, inguruko herriak haren lurraldeetan sartu ziren. ► (23. dok.)

Enperadoreek, defentsa egokia antolatzeke gaitasunik ez zutenez, inperioa zatitu egin behar izan zuten, eta inguruko herri horiekin itunak egin edo aliatu gisa lotu (*foederati* edo *federatuak*).

Testuinguru horretan, sueboek, bandaloek eta alanoek Penintsula inbaditu zuten, V. mendearen hasieran. Haiei aurre egiteko, enperadoreak herri federatuetako bati dei egin zion: bisigodoi. Bisigodoak Baskonia konkistatzen ere saiatu ziren. ► (22. dok.)

Bisigodoek itun bat egin zuten erromatar enperadorearekin V. mendearen hasieran: **Tolosako Erresuma** ezarri zuten Frantziako hegoaldean, eta Iberiar penintsulan sartu ziren, sueboak, bandaloak eta alanoak kanporatzeko.


Ia mende bat geroago, 507. urtean, Mendebaldeko Erromatar Inperioa desagertuta zegoelarik jada, bisigodoek, frankoen aurkako borrokan galdu ondoren, Frantziatik alde egin zuten, Penintsulan ezarri ziren behin betiko eta **erresuma independente bat sortu zuten, hiriburutzat Toledo hartuta**. ► (24. dok.)

23. dok. Erromatar Inperioaren zatiketa eta germaniar herrien inbasioak.

GERMANIAR HERRI NAGUSIAK ETA INBASIO-BIDEAK

- Ostrogodoak
- Bisigodoak
- Alanoak
- Sueboak
- Frankoak
- Angloak eta saxoiak
- Bandaloak
- Mendebaldeko Erromatar Inperioa
- Ekialdeko Erromatar Inperioa

- Zer herrik inbaditu zuten Mendebaldeko Erromatar Inperioa?



4.1. Bisigodoen Erresumaren bilakaera politikoa

Bisigodoak, botere politikoa izan arren, **gutxiengo sozial bat** ziren Penintsulan, biztanleria hispano-erromatarrekin alderatuta

Denborak aurrera egin ahala, asimilazio-prozesu bat gertatu zen eta bisigodoak noble autoktonoekin nahasi ziren. Ordurako bisigodoak nahiko erromanizatuta zeuden.

Bisigodoen monarkia hautazkoa zen, hau da, noble bisigodoek beren artean aukeratzen zuten errege berri bakoitza. Horrek ezegonkortasun politiko nabarmena eragin zuen, nobleek, koroa lortzeko lehian, gatazka ugari izan zutelako beren artean.

Leovigildoren agintaldiaren ostean (572-586) Penintsula batzeko prozesu bat hasi zen: bizantziarrak kanporatu eta Sueboen Erresuma konkistatu zuten.

***Ariotar:** Ario (256-336) Afrikako iparraldeko gotzainaren jarraitzailea; Ariok Jesus jainkoak izaerarik gabeko gizona zela aldarrikatu zuen. Nizeako Kontzilioaren ondoren (325), doktrina hori heresiatzat jo zen mundu katolikoan.



24. dok. Bisigodoen Erresumaren hedapena.

- Zer fase izan zituen bisigodoen Hispaniako konkistak? Zer herriri egin behar izan zieten aurre?
- Non ezarri zuten hiriburua?

- Leovigildoren lurraldeak haren erreinaldiaren hasieran
- - - - Sueboen Erresumaren mugak
- · · · · Bizantzioren lurraldearen mugak
- Leovigildoren lurraldeak haren erreinaldiaren hasieran
- Leovigildok konkistatutako lurraldeak
- Bisigodoek konkistatutako azken lurraldeak

ITURRIA: J. Vicens Vives, *Atlas de historia de España*, 1986

Errege horrek bisigodoen eta hispano-erromatarren arteko erlijio-batasuna ere lortu nahi izan zuen. Izan ere, bisigodoak **ariotarrak*** ziren; eta hispano-erromatarrek, katolikoak. Erlijio-batasuna lortzeko helburua Leovigildoren seme **Rekaredo** errege zela (586-601) bete zen; Rekaredo katolizismora bihurtu, eta erlijio-zatiketa amaitu zen.

Bisigodoen eta hispano-erromatarren arteko batasun erabatekoa *Liber Iudiciorum*ak (Foru Juzgo legeak) 654. urtean ezarritako **legezko berdintasunaren** bitartez gertatu zen.

Errege bisigodoek, teoriarik, botere handia zuten, baina beste gobernu-erakunde batzuekin partekatzen zuten. Horien arteko garrantzitsuenak **Aula Regia** izan zen, aristokrazia bisigodoak osatutako batzar aholku-emailea

Rekaredorekin erlijio-batasuna gauzatu eta gero, Bisigodoen Erresumako beste erakunde handia sortu zen: **Toledoko Kontzilioak***. Funtsean, kontzilioa erakunde erlijiosoa bazen ere, denborak aurrera egin ahala indar politiko handia hartu, eta lege-arloko egiteko garrantzitsuak bereganatu zituen.

4.2. Landatartutako gizartea

Erromatar Inperioaren amaierako krisiak **gizartearen landatartzea** area-gotu zuen; hiriak gainbehera betean zeuden eta merkataritzaren krisiak autarkia bultzatu zuen.

Esklaboak gero eta urriagoak ziren, eta haien lekua **nekazari libre eta kolonoek** hartu zuten. Esklaboak eta nekazariak mendeko nekazariz osatutako talde bakarrean batu ziren: **jopuak**.

Bisigodoen Erresumaren ahultasunaren ondorioz, harreman pertsonalek ordezkatu zituzten haren egitekoak. Horregatik, lursail txikien jabe askok nobleen babesa bilatu zuten, haiek tropak zituztelako. Ordainean, lursail txikien jabeek beren lurak utzi behar izan zituzten, edo nobleentzat lan egin. Gainera, monarkiak lurren bidez ordaindu ohi zituen nobleziaren zerbitzuak. Horren guztiaren ondorioz, **nobleziak gero eta botere handiagoa zuen**. Gizarte-eredu feudala ari zen ernatzen.

***Kontzilioa:** Eliza katolikoaren gotzainen batzar edo bilkura, erlijio-doktrina definitzeko eta interpretatzeko ahalmena duena.

JARDUERAK

- 16. Identifikatu** bisigodoak Hispaniara iristeko arrazoiak.
- 17. Azaldu** monarkia bisigodoaren arazoak.
- 18. Aztertu** zer prozesuri jarraitu zioten bisigodoek lurraldea batzeko.
- 19. Ikertu** Interneten errege bisigodoek sortutako euskal hiriei buruz.

SUSTRAI HISTORIKOAK



HISTORIAURREA K.a. 1.200.000 – 1.000

Paleolitoa

- Ehizan, bilketan eta arrantzan oinarritutako ekonomia.
- Labar-arte: kantauiarra eta Levantekoa.

Neolitoa

- Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako ekonomia.
- Giza taldeen sedentarizazioa.

Metal Aroa

- Zatiketa kronologikoa: kobreak, brontzearen eta burdinaren kulturak.
- Kulturak: Megalitismoa, Los Millares, El Argar, kutxen zelaia eta abar.

Zeltak eta iberiarak

- Bi kultura autoktono: zelta eta iberiarra.
- Bi herrien arteko elkargunean zeltiberiarak sortu ziren.

Tarteso

- Penintsulako hego-mendebaldeko kultura autoktonoa.
- Oinarri ekonomikoa: meatzaritza eta brontzearen metalurgia.

Baskonia

- Autrigoiak, karistiarak, barduliarak, beroiak, baskoiak, akitaniarrak.
- Ia ez zuten izan eragin kolonizatzaileak.

Herri kolonizatzaileak

- Feniziarak, greziarrak eta kartagotarrak.
- Presentzia hegoaldean eta Mediterraneoko kostaldean.

ERROMATARREN AURREKO HERRIAK K.a. 1.000 – 218

HISPANIA ERROMATARRA (K.a. 280 – K.o. 416)

BISIGODOEN ERRESUMA (K.o. 416 – 711)

- Konkista-prozesu luzea.
- Erromanizazioa: eredu politikoak eta kulturalak bereganatzea.

- Penintsulan ezarri zen herri federatu gisa.
- Pixkanaka hispano-erromatarrekiko asimilazioa.
- Sarraldi laburra euskal lurraldeetan.



JARDUERAK

20. Konparatu eta garatu laburpenaren puntu hauek.

- Paleolitoko eta Neolitoko ekonomia.
- Erromatarren aurreko Baskoniako herri autoktonoak eta herri kolonizatzaileak.
- Erromanizazioa eta bisigodoen eta biztanle hispano-erromatarren arteko asimilazioa.

21. Osatu tartesotar kulturari buruzko taula hau.

Kokapena	
Jarduera ekonomikoak	
Antolaketa politikoa	

SINTESI-LANA

22. Aztertu dokumentuak.

25. dok. Atapuercako aztarnategien historia.

Atapuercako mendilerroa mendigune karstiko bat da, eta informazio ugari gordetzen du. Atapuercako Ikerketa Taldeko kideak 1978az geroztik egiten ari diren indusketa sistematikoetan, oso garrantzi handiko fosilak ari dira azaleratzen; horien bidez, Europako historia osatzen ari dira, eta duela milioi bat urte baino gehiagotik hona Europako giza taldeek zer bilakaera izan duten ezagutzen. Orain arteko lanen ondorioz, bost espezieren arrasto fosilak eta ebidentzia zuzenak aurkitu dituzte: *Homo sp.* (oraindik zehaztu gabea, duela 1.200.000 urte), *Homo antecessor* (duela 850.000 urte), *Homo heidelbergensis* (duela 500.000 urte), *Homo neanderthalensis* (50.000 urte) eta, jakina, *Homo sapiens* (gu).

www.museoevolucionhumana.com/es/yacimientos

- Adierazi Atapuercan aurkitutako hominido moten kronologia. Zer hominido mota da euskal lurraldeetan aurkitutako giza hondakinik antzinakoena?

26. dok. Izen propioa duen bifaz bat: *Excalibur*.

Hezurren Leizean (Atapuerca, Burgos) duela 40.000 urteko gizakien 4.000 fosil aurkitu dituzte dagoeneko, kasu bakarra munduan. Baina hezurak ziren soilik, ez zen Historiaurreko gizaki haien beste aztarnarik. Horregatik, harrizko aizkora bat aurkitzeak, kuartzita gorritz egina eta dotorezia handiz zizelkatua, liluratuta utzi zituen Juan Luis Arsuagaren taldeko paleontologoak. Uste da hileta-erritu bateko parte izan zela, eta adimen sinbolikoaren (gizakia-rena baino ez den dohain horren) aztarnarik zaharrena dela. Aizkora, *Excalibur* izenez bataiatua, 1998an aurkitu zuten.

A. RIVERA, «Un hacha funeraria hallada en Atapuerca indica que ya había ritos funerarios hace 400.000 años», *El País*, 2003



- Zer da bifaz bat? Zertarako erabiltzen zen?
- Adierazi aurkikuntza horren garrantzia.

27. dok. Atapuercan aurkitutako *Homo antecessor*aren aztarnak.

- Hezur-hondakinek informazio ugari ematen diete antropologoei, historialariei eta zientzialariei. Zer datu ematen digute argazkikoek?

28. dok. Ehiztariak ala sarraskijaleak?

1960ko hamarkadan, lehen hominidoak ehiztaritzat jotzen zituen interpretazioa zabaldu zen. Ehiztari indartsuaren mitoak paradigma perfektua aurkitu zuen Iberiar penintsulan: *elefanteen hiltegiak* deritzenak. Leslie G. Freeman eta Clarck Howell Historiaurrearen ikerlariak Torralbako eta Ambronako (Soria) aztarnategiak (*Homo erectus*) mota horretako ehiza-lekuen arrastoak zirela interpretatu zuten; Freeman eta Howellek landutako interpretazioen arabera, istilen eta zingiren ondoan kokatutako ehiza-leku horietan, ondo antolatutako giza taldeek, xabalinaz eta zuziz hornituta, elefante saldoei erasoko zieten.

Baina 1980ko hamarkadaren urteetan ehiztariaren hipotesiak kritika gogorra jaso zuen. Lewis Bindfordek, kritika horren lider nagusiak, ondorioztatu zuen lehen biztanleak ez zirela ehiztari indartsuak izan, eta ez zutela ezein ehiza motatarako batere trebetasunik. Bindfordek zioenez, hominidoek okela jateko irrika asetzeko zuten modu bakkarra kasualitatez sarraskia aurkitzea zen.

Torralbari eta Ambronari buruzko azken lan monografikoan, leku horietan elefanteak zahartuta ordurako berez hiltzen zirela interpretatu zuen Bindfordek, eta batzuetan gizakiek bisitatzen zituztela, ahora eramateko sarraskia eskuratu ahal izateko.

Gaur egun, ehiza/sarraskia dilema malgutu egin da, eta biak elikagai irrikatua lortzeko praktika osagarri gisa ulertzen dira. Trebetasun hori frogatuta geratu da Atapuercako Dolinako eta Galeriako *heidelbergensis* gizakien erreregistroan.

M. MENÉNDEZ GONZÁLEZ, *Prehistoria antigua de la península ibérica*, 2013

- Zer hominido motaren ebidentziak daude Torralbako eta Ambronako aztarnategietan?
- Zer aldaketa izan dituzte lehen hominidoen jarduera ekonomikoei buruzko hipotesiek?



Egin sintesia

23. Unitate honetan ikasitakoan eta dokumentu hauetan oinarrituta, egin txosten bat Iberiar penintsulako giza eboluzioari buruz eta Historiaurreak Penintsulan eta euskal lurraldeetan izan zituen ezaugarriei buruz. Horretarako, egituratu txostena atal hauetan banatuta:
- Hominido motak eta haien kronologia.
 - Bizimoduak.
 - Jarduera artistikoak eta sinesmenak.
 - Iberiar penintsulako eta euskal lurraldeetako aztarnategi handiak eta zer garairi dagokion horietako bakoitza.



Ardatz kronologikoak

Ardatz kronologiko bat gertakari edo aro sail baten adierazpen grafikoa da. Grafikoa izateak oso didaktiko bihurtzen du, une jakin batean gertakari historiko batzuk zergatik gertatu ziren eta zer ondorio izan zituzten ulertzen laguntzen duelako.

NOLA EGIN

1 Datu historikoen aukeraketa

- Garai historikoa eta hasierako eta amaierako datak aukeratzea.
- Garai hori zer etapatan zatitu erabakitzea, eta etapa bakoitzaren hasierako eta amaierako datak apuntatzea.
- Gertakari garrantzitsuenak eta horien datak aukeratzea.

2 Datuen antolaketa kronologikoa

- Adieraziko diren datak ordenatzea, antzinakoenetik hasi eta berrieneraino.
- Gertakariak multzotan banatzea, etapen edo tipologiaren arabera, beharrezkoa irudituz gero.

3 Ardatzaren marrazkia

- Eskala aukeratzea: hilabeteak, urteak, hamarkadak, etab.
- Ardatz kronologikoa marraztea eta etapatan zatitzea.
- Datuak idaztea, bakoitza dagokion lekuan.

ARDATZ KRONOLOGIKOEN SOFTWAREA

Ardatz kronologiko bat egiteko denbora behar da; lan nekeza da. Gaur egun badira lan hori erraztu diezaguketen programa informatikoak.

Programarik gomendagarrienak hauek dira:

1 Offline:

- *Timeline Maker Pro*: Windowserako eta ordainduta.
- *Timeline 3D for Mac*: Mac-erako eta ordainduta. iPad-erako ere bai.

2 Online: edozein sistema eragiletarako.


- Preceden: doakoa. www.preceden.com/
- Dipity: doakoa. www.dipity.com/
- Frise Chronologique: doakoa. www.frisechronos.fr

ZEUK EGIN

Begiratu ardatz kronologikoari eta erantzun:

- Adierazi zer denbora-escala erabili den ardatz honetan. Zer abantaila eta zer eragozpen ditu?
- Nola adieraziko zenituzke gertakariak ardatza bisualago izan dadin: etapen arabera banatuta, gertakari motaren arabera banatuta (politikoa, soziala eta abar)?
- Bilatu unitatean euskal lurraldeetako Historiaurreko gertakariak edo etapak, eta egin ardatz kronologiko bat horiekin, emandako jarraibideak aintzat hartuta.

29. dok. Iberiar penintsula eta Baskonia Germaniar Erresumen garaian.





Ondare erromatarren iraupena

Erromatar Inperioa K.o. 476. urtean desagertu baldin bazen ere, haren sorkuntza kulturalak, artistikoeak, politikoeak eta are ekonomikoeak ere gaur arte iraundute, eta gaur egun zer garen eta zer pentsatzen dugun ulertzeko funtsezko ondarea bihurtu dira.

30. dok. Hiritartasun erromatarra.

Hiritar izateak, eskubide batzuk ez ezik, normala denez, betebeharrak batzuk ere ematen zituen: betebeharren arloan zeuden, batez ere, zerbitzu militarra egitea eta zerga jakin batzuk ordaintzea; eskubideei dagokienez, hiritar ez zirenek baino zerga gutxiago ordaintzekoa zen aipagarriena, politika-arloarekin estu lotutakoetatik apartekoan artean. Horrez gain, hiritar batek hainbat gauza egiteko eskubidea zuen: hiritarren familia batekoa zen edonorekin ezkondu; beste hiritar batzuekin negoziatu; probintzia bateko hiritarra izanik ere, Erroman epaitu zezatela eskatu, bera bizi zen probintziako gobernadorearekin auzirik izanez gero; eta abar. Politika-arloari estu lotuta, hiritar izateak hiru eskubide mota ematen zituen: Batzarretako kideei eta magistratuei botoa ematekoa; Batzarrean aulki bat izatekoa; eta magistratu bihurtu ahal izatekoa.

J. A. HORRACH MIRALLES, «Sobre el concepto de ciudadanía: historia y modelos», *Factótum*, 2009



31. dok. Iruña-Veleiako (Araba) erromatar hiriaren hondakinak.

Ondare hori materiala (monumentuak, galtzadak, mosaikoak eta abar) zein materiagabea (hizkuntza, zuzenbidea, literatura, jaiak eta abar) izan daiteke.

Beraz, ez da zaila gure geografian zehar erromatar jatorria duen ondare material ugari ikustea.



32. dok. Teseoren eta Minotauoren arteko borroka mosaikoa, Iruñea (Nafarroa).

33. dok. Latinaren eragina euskarari.

Erromatarrek iritsi ondoren, euskara eta latina eremu berean bizi izan ziren hainbat urtez, eta elkarri eragin zioten.

Koldo Mitxelena hizkuntzalariaren arabera, euskarak oso goiz hartu zituen maileguak latinetik, eta euskararen fonetikara egokitu zituen (*gaztelu*, *polita*, *gauza*, *zapatua*, *domeka*, *area*, *katea*...); pertsona-izenak ere hartu zituen (*Luki*, *Lucio*; *Peru*, *Petrus*; *Eritz*, *Felix*...). Badira, halaber, erromatarren garaiko toponimoak ere, hala nola *Forua*, hiru *Iruñak*, eta *-ika* amaiera duten toponimoak. Euskal hiri batzuek bi izen izan zituzten, bata latinez eta bestea euskaraz: adibidez, Iruñea-Pompaelo. Hala ere, morfosintaxiak jatorrizko ezaugarriak gorde zituen.

K. MITXELENA eta beste batzuk, *Sobre la historia de la lengua vasca*, 1988

JARDUERAK

27. Bilatu eta aztertu, hala ikuspegi artistiko batetik nola ikuspegi funtzional batetik, zure herriko edo beste nonbaiteko aztarna erromatar bat. Ondoren, baloratu zer garrantzi duen horrek bere inguruaren edo eskualdearen historian.

28. Komentatu hiri erromatarren oinarritzko diseinua. Adierazi, halaber, zer azpiegitura aurkitu zitezkeen hiri horietan. Zer azpiegitura modernok imitatzen eta ordezkatzen dituzte horiek gaur egun?

29. Adierazi zertan diren antzekoak eta zertan desberdinak *hiritartasun* kontzeptu erromatarra eta gaur egungoa.

30. Bilatu eta azaldu euskarak latinetik hartutako mailegu batzuk.

Gaiari buruzko informazioa

www.derechoromano.es

www.veleia.com

www.irun.org/oiasso/home.aspx?tabid=1

www.educaixa.com/-/que-nos-queda-de-los-romanos

www.cervantesvirtual.com/obra-visor/el-latn-en-hispania-la-romanizacin-de-la-pennsula-ibrica-el-latn-vulgar-particularidades-del-latn-hispnico-0/html/00f48998-82b2-11df-acc7-002185ce6064_2.html

Lur azpiko artea euskal lurraldeetan



31. Irakurri Ekaingo pinturen digitalizazioari buruzko testua, eta ikertu UNESCOk labar-pinturen balioagatik Gizateriaren Ondare izendatutako euskal lurraldeetako haitzuloei buruz:

- Zure ustez, zergatik ixten dira bisitarientzat jatorrizko haitzulook?
- Zure ustez, bisitariak balioesten al dituzte haitzulo birtuala eta aplikazio digitalak?
- Altxerriko *Kapera Sixtinoa*, 1962. urtean aurkitua, ez da Santimamiñe eta Ekain haitzulook bezain ezaguna. Zergatik, zure ustez?



34. dok. Ekain haitzuloaren bereizmen handiko digitalizazioa

Eusko Jaurilaritzak Gipuzkoako Ekain haitzuloaren barnealde digitalizatzeko lanak egin ditu. UNESCOk 2008an Gizateriaren Ondare izendatutako haitzulo hori Paleolitoko labar-artearen adierazle bikainenetako bat da. Egindako lan horri esker, altxor paregabe hori munduan zehar hedatuko da, Ekain haitzuloa eta Paleolitoko artea ezagutu nahi duen ororentzat, Second Canvas Ekain deritzon aplikazio digitalaren bitartez.

Artelaren digitalizazioan munduan erreferentziazkoa den enpresa batekin elkarlanean egin da digitalizatzeko-lana, Madpixel enpresarekin, eta proiektu hau izan da Penintsulan haitzulo baten gigapixel-digitalizazioko lan bat egiten lehena.

Haitzuloa, kontserbazioa bermatze aldera, bisitarientzat itxita dago 1969. urteaz geroztik. Hortaz, Ekainberri izeneko

35. dok. Zaldei galeriako zaldi-panela.



erreplika bikaina badu ere, jatorrizko altxor artistikoak, orain dela 14.000 urte inguru margotuak, ezin izan dira ikusi gaur arte.

Orain, haitzulo horretako margolanen bertsio digitalaren bidez ondare hori ezagut dadin sustatzeko eta *urrutiko* ikusleek ere eskuragarri izan dezaten errazteko, Eusko Jaurilaritzak artelan hori digitalizatzeko ardura hartu du. Horretarako, oso bereizmen handiz grabatu dira irudiak.

Hala, Ekaingo haitzuloko panel nagusien (Zaldei, Erdialde, Azkenzaldei eta Artzei galerietakoak) oso bereizmen handiko digitalizazioak lortu dira, eta irudi infragorriak ere hartu dira; irudi infragorri horien bidez, askoz argiago ikus daitezke bai figurak bai ingeradak, bai eta margolanetan erabilitako teknika ere. Haitzuloko areto nagusien 360°-ko ikuspegi interaktiboak ere sortu dira, Eusko Jaurilaritzaren jabetzako materialak berreskuratu eta egokituta.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016ko urria

Oraindik Baskoniarik ez zegoenean



32. Irakurri testua eta egin solasaldia ikaskideekin, alderdi honi buruz: labar-pinturek ahalegin goiztiar eta bitxi bat erakusten dute, hiru dimentsioko objektuak horma bateko bi dimentsioko planoan irudikatzen baitituzte. Zer esanahi zuen arteak Paleolitokoan?

- Zoria? Magia sinpatikoa? Mitologia? Totemismoa?

36. dok. Arteak Historiaurreko garaietan

Bada xehetasun bat, Ekaingo margolanei zentzu enigmatiko bat ematen diena: hezur-hondakin ugariak oreinenak eta ahuntzenak dira. Hortaz, haitzuloko hormetan irudikatzen zutena gutxien ehizatzen eta kontsumitzen zutena zen. Paleolitoko gizakiak ehizatu nahi zituen animaliak ez datoz bat ezagutzen zituen animaliak irudikatzean zeuzkan interesean.

Jesus ALTUNA, Ekain, Altxerri. Dos santuarios paleolíticos en el País Vasco, 1997

Labar-artea 3Dn



33. Erreparatu Santimamiñeko labar-pinturei esteka honetan: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-7792/es/contenidos/informacion/santimamine_aurkinkuntza/es_11306/aurkinkuntza.html. Gero, osatu fitxa.

Bilatu Interneten Santimamiñe haitzuloaren 3Dko erreplika birtualari buruzko informazioa, eta egin txosten bat, azaltzeko zer-nolako zehaztasunez eta xehetasunez ikus daitezkeen margolanak Virtualwarearen hiru dimentsioko betaurrekoekin (aukera ematen diote ikusleari haitzuloaren barruan balego bezala ikusteko).

- Zein dira ugariagoak Santimamiñen, grabatuak ala margolanak?
- Zer animalia ikus daitezke ganberan, estalagmita baten gainean?
- Zenbat hanka ditu haitzuloko ganberaurrean margotutako zaldiak?
- Zergatik daude hondatuta panel nagusiko margolanak?

Second Canvas Ekain



- 34. Irakurri Jose Migel Barandiaranen testua, eta deskargatu Second Canvas Ekain aplikazioa. Ezagutu galeriak, 360º-ko irudi panoramikoei jarraituz, areto hauetan zehar: Erdialde, Aldei, Artzei eta Azkenzaldei:**



37. dok. Arte kuaternarioko zaldi multzorik perfektuena

Ekain haitzuloa aurkitu zutenek, Rafael Rezabalek eta Andoni Albizurik, zulo estu batetik sartu behar izan zuten, eta herrestan hoge bat metro egin, altuera gehixeago zuen galeria batera iritsi arte. Zutik jarri eta oinez abiatu ziren, eta gero eta zabalagoa eta ederragoa zen haitzuloa. Eta halako batean, mirespena. Benetako santutegi bat zen: zaldi ugariz osatutako multzo bat ikusi zuten margotuta, eta gero beste irudi-segida luze bat. Horren ostean, zenbait indusketa-kanpaina egin ziren, eta santutegi horretako altxor artistiko harrigarria are sakonago ezagutu zen.

Ekaingo irudiak zoragarriak dira. Oso multzo ederrak eratzen dituzte. Leroi-Gourhanek honela izendatu zuen hormako paneletako bat, zaldi gehien duena: «arte kuaternarioko zaldi multzorik perfektuena», Altamira, Niaux eta Lascauxeko irudi bikainen parekoa. «Ekaingo irudiak, gutxi gorabehera Niaux eta Altamirako en garaiak, arte franko-kantauriarren aldi klasikoaren gailurretako baten erakusle dira».

Ekainen, zaldia da irudikapen nagusia: 34 zaldi, 11 bisonte, 5 ahuntz, 3 orein, 2 hartz eta 2 arrain daude. Adierazpen ikoniko horietan, perfekzio anatomikoa goresgarria da, eta bereziki nabarmentzen dira ingeradak markatzeko modua eta irudi batzuen polikromia.

Jose Migel BARANDIARAN, *Munibe*, 1963

- 38. dok. Second Canvas EKAIN app-ak aukera ematen du gigapixel-digitalizazioen bitartez Ekain haitzuloa ezagutzeko eta hango labar-pintura miresgarriak aztertzeko: zaldiak, bisonteak eta hartzak.**



- Zer kolore erabili ziren Ekaingo margolanak egiteko, eta non dute jatorria pigmentu horiek?
- Erdialde galeriaren sarreran, labar-artean ohikoa ez den animalia baten irudia ageri da. Zer animalia da?
- Haitzuloko zer lekutan daude bi hartz arreak?
- Non dago hein batean grabatutako zaldia?
- Zer animalia daude irudikatuta sarreratik hurbilen dagoen aretoko haitzean?



35. Egin gogoeta ikastaldean, Ekaingo margolanak ikusteko aplikazioari buruzko baieztapen hauek abiapuntu hartuta:

- Ekainen Paleolitoko zaldi-panel onena dago, eta kontserbazioa bermatzeko dago itxita bisitarientzat
- Haitzuloa munduko edozein lekutatik ikus daiteke, eta irisgarritasun-arazoak ezereztzen dira.
- Aplikazioa erabiliz, ez dira hautematen alderdi emozional batzuk, hala nola haitzuloko hotzarekin eta ukimenarekin loturikoak.
- Irudiak oso bereizmen handiz grabatutakoak izateak eta 360º-ko irudiek aukera ematen dute haitzuloko pinturretara gerturatzeko eta haietan «giza begiak atzematen ez dituen» xehetasunak hautemateko.
- Giza faktorea funtsezkoa da, gidaria, alegia.
- Ekain haitzuloaren ondare kultural, arkeologiko eta artistikoa gizarteratzea eta balioestea sustatzen du, erreplikara egiten den bisita kopurua murriztu gabe.
- Aplikazioak aukera ematen du irudiak sare sozialetan partekatzeko, eta erabiltzaileak haitzuloari buruzko «istorio pertsonalak» sor ditzake.
- Aplikazioa «hobetu, zabaldu eta sakondu» ahal izango da.



Landu txosten-proposamen bat

- 36. Ekarri gogora unitate honetan euskal lurraldeetako labar-arteari buruz ikasi duzuna eta azken atal honetan lortutako informazioa. Bilatu labar-pinturak babesteko eta kontserbatzeko programari buruzko informazioa, eta egin txosten-proposamen bat, behar hau aldarrikatzeko: gailu digital bat baliatzea, euskal lurraldeetako Historiaurreko hirugarren santutegi handia, Altxerri, jendartean ezagutarazteko.**

